

«Emakumeek dantza egin dute beti. Ez dakiguna da gizonak dantzatuko diren etorkizunean»

Aspalditik zuen Oier Araolazak euskal dantza ikeritzeko gogoia. Doktorego programan lan bat egin zuen haur eskolei buruz, atal bat eskaini zion generoari eta ikusi zuen puntu interesgarria zela justu gauzak aldatzen ari zirelako edo bazegoelako aldaketarako nahi edo behar bat.

Dantzaria da Araolaza. Badira hogeia bat urte dantza taldeetan generoaren gaineko gogoetak plazaratzen ari direla, baina azken bospasei urteotan «izugarrizko azkartze bat» izan da. Dantzan.com atarian egiten du lan eta bertan ere behin eta berriz etorri zaizkie zalantza, galdera, aholku eta esku hartze eskaerak.

Tesiarekin hasi zenean berehala ikusi zuen bazela behar bat. «Gure taldetik hasita, nire burutik hasita eta euskal dantzaren sektorera iritsi arte bageneuzkan hainbat galdera eta horien erantzunak argitzen ahalegintzea bide interesgarri bat izan zitekeen», azaldu du.

Ikuspegi oker bati buelta

Alde batetik, helburu dibulgatibo bat du lanak: «Euskal dantza eta generoaren inguruan sustraitua dagoen ikuspegi oker bati buelta ematea». Ikuspuntu oker horrek dio tradizionalki emakumeek ez dutela euskal dantzetan dantzatu izan, ez behintzat dantza garrantzitsu edo ikusgarrietan, aurrekuan kasu. «Badira hogeia urte ikertzaileak adierazten ari direla ikuspegi hori okerra dela, baina gezur horrek, tesia egiten hasi nintzen behintzat, indar handia zeukan oraindik, bai dantza

taldeetan bai gizartean. Emakumeek egiten zituzten dantzak beti berriak edo sorkuntzak zirela kontsideratzen zen, emakumeei aukera hori eman ahal izateko, edo gizonezkoen errepertoriotik egokitutakoak zirela kontsideratzen zen».

Lana egiterakoan gezur hori noiz, nola eta zein funtzioarekin eraiki zen ulertzea eta jakitea izan da interesgarriena Araolazarentzat. «Ulertzea nola bukatzen dugun ukatzen hain ebidentea den gauza bat, nola iristen garen gela barruan daukagun elefantea ez ikustera eta ukatzera».

Deseraiki

Bestetik, gaur egungo praktikara begira zamatzat dituen genero eta tradizioarekin lotutako ezaugarriak deseraikitzea bilatu du. «Agerian jartzea genero identitatea euskal dantzan eraikuntza bat dela eta eraikuntza horren ezaugarriak biluztea, euskal dantzan ari garenok ahalik eta esku libreenak izan ditzagun eta ez gaitzan baldintzatu horrek orain arte bezala».

Ikerlariaren arabera, XX. mendeko eta gaur egungo euskal dantzak baldintzatu dituen kategorizazioa nagusia nesken eta mutilen dantzak izan dira. «XX. mende hasierako sorkuntza kontzeptual horrek lortuko duena da naturalizatzea, denok sinestea berezkoa, betidanikoa, guztiz tradizionala, normala dela dantzak sailkatuak egotea mutilen eta nesken dantza bezala. Nire ikaspen garrantzitsu bat izan da ohartzea sailkapen hori eraikuntza bat dela, orain dela 100 urte ez sortu baina bai bultzada nabarmena jaso zue-na, eta egon direla horren au-

rretik espazio irekiak non euskal dantzak ez ziren hain modu nabarmenean kategoriatu horren arabera pentsatzen. Dantzak dantzak ziren eta ez nesken dantzak edo mutilen dantzak».

Araolazaren ustez, horren kontziente izatea funtsezkoa da praktikak nola egin pentsatu ahal izateko. Eta beharrezkoa ez den tokietan –«eta kasu gehienetan ez da beharrezkoa»–, genero kategoriatu horren arabera sailkapena guztiz albo batera uzteko. «Guztia kategoriatu horren arabera pentsatzeak desberdinkeria eta gutxiespen eta bazterketa harremanak bakarrik sendotzen eta sustatzen ditu».

Dantza, femininotzat hartu

«Azken hogeia urteetan gauza asko aldatu dira eta azken bost urteetan izugarrizko aldaketa handiak gertatu dira, baina oraindik hainbat daude aldatzeko. Hori tokian tokiko dantza tradizionalei dagokienez, herrietan espazio sinboliko eta egun berezietan egiten diren dantzei dagokienez. Baina hortik aurrera arriskuak ikusten ari gara. Dantza oro har gizartean oraindik eta gehiago kategorizatzen ari da generoaren arabera», ohartarazi du.

«Orain dela 40 urterekin alderatuta orain dantza askoz ere praktika femeninoagotzat identifikatzen da gizartean eta gizonak, batez ere umeak eta mutil gazteak, inoiz baino urrutiago daude dantzatik kategorizazio horretan ikusten dutelako hori ez dela beraien tokia. Eta hori drama hutsa edo etorkizun ilunenaren iragarpena iruditzen zait».

Agertu duenez, dantza mota ezberdinetan garai ezberdine-

OIER ARAOLAZA ARRIETA

«GENERO-IDENTITATEA EUSKAL DANTZA TRADIZIONALAREN ERAIKUNTZAN» TESIAREN EGILEA

Dantza jarduera humano eta unibertsala da, jendartearentzat neurtu ezin den balioa duena, eta ez du generorik. Hala transmititu digu, pasio izugarriz, Oier Araolaza Arrieta dantzari eta ikertzaileak.

Maidar Iantzi Goienetxe

tan hasi da feminizazio prozesu hori eta euskal dantzan beranduago iritsi da. Baina balle-tean eta beste dantza mota batzuetan lehenago hasi zen.

«Nire ustez kezkatzeko kontua da gizarte osoarentzat. Dantza oso-oso jarduera humanoa da. Unibertsala: munduan ez dago kultura bat ere dantzarik egiten ez duenik eta gizateriaren historian ez da egon aro bat ere, zibilizazio bat ere dantzatu ez denik. Beraz, orain gaude egoera batean non gizartearen erdiak pentsatzen duen dantza ez dela berrari dagokion jarduera bat eta guztiz abandonatzeko asmotan dagoen, jada ez baldin badu abandonatu».

Zergatik gertatu da hori?

Genero estereotipoekin lotzen du Araolazak gertatutakoa. «Gizartean oro har parekidetasunaren eta bazterketaren kontrako ikuspegia hobetzen ari da azken urteetan, baina, aldiz, umeek jasotzen dituzten genero identitate rolak inoiz baino goiztiarragoak, zurrungoak eta zehaztuagoak dira».

«Edozein eskola eta etxetan ikus dezakezu ume denak, mutil ala neska, 3-5 urte bete arte oso dantzariak direla. Dantza berez sortzen den emozio bat da eta, gainera, adin horietan oraindik hitzaren bidez espresatzeko zailtasunak dituzte eta beste tresna espresibo batzuk garatuagoak dituzte, adibidez dantza. Ume denak dantzatzen dira. Baina 3, 4, 5 urteko tarte horretan mutiko asko hasten da dantza uzten. Oso lotua dago hori beraien genero identitatearen identifikazioarekin. Ohartu egiten dira edo ikasi egiten dute nola tratatzen ditugun konturatuta, eta gizartean gizon eta emakumeek ditugun zenbait portae-



Desafioa Orion, 1942an. Vicente MARTIN | KUTXATEKA

IBILBIDEA

Dantzaria da Oier

Araolaza eta generoarekin lotutako kezkek badute ibilbide bat dantza taldeetan.

Dantzan.com atarian egiten du lan eta behin eta berriz etorri zaizkio gaiaren inguruko galderak. Ondorioz, **fokua nagusi bihurtu** zaio genero identitatea euskal dantzan.

ra eta rol ezberdin irakurrita. Genero identitate batean kokatzen ditugu eta genero horri lotutako jardueretan hasten dira indar egiten eta beraien genero identitateari lotuta ez dauden ezaugarriak guztiz ukatzen eta baztertzen».

Hala, «neskek dantzan eta jolas erritmikoetan gozatzen jarraitzen duten bezala, mutilak hasten dira ordura arte beraien izaeraren parte izan den atal hori beraien buruari ukatzen eta bestelako aktibitate, kirol, baloi joko eta bortizkeriarekin lotutakoetan –borrokak, bultzakadak–, trebatzen eta erosoago sentitzen».

Alerta dei bat

Ikerlariarentzat, «alerta dei bat» da. «Egindako bidea eta emandako aurrerapausoak, irabazitako espazioak balioan jarri behar dira eta zoriundu behar dugu feminismoa eta gi-

zartea oro har. Baina kontziente izan behar dugu beste alor batzuetan, edo 'B aldean', kontrako norabidean ere pausoak daudela. Horiekiko kontzientzia aktibatzen ez badugu, hemendik urte batzuetara asko kostako zaigu buelta ematea, horretarako gai bagara».

«Argi dago emakumeek dantza egin dutela historiaren kontzientzia daukagunetik. Ez dakiguna da gizonezkoek dantzan egingo duten etorkizunetan. Horregatik, interesgarria iruditzen zait genero identitatearen eraikuntza horri buruz tesi honek irakatsi didana. Hain zuzen ere, identitate horiek eraikiak direla eta dantzak ez daukala generorik».

Auzia benetan sakona da: «Gizonezkoek beraien buruari dantza ukatzen diotenean gizaki egiten dituen oinarritzko ezaugarrietako bat ari dira ukatzen. Ez da bakarrik be-

raien buruari ukatzen diotela; gizarteari berari kentzen diote berezkoa duen jarduera bat. Bik ezin dute dantzatu batek ez badu nahi. Eta gizarte bat ezin da dantzaren bidez osoki espresatu, bizi eta konpartitu gizartearen erdiak uko egiten badio horri».

Dantzaren balioa

Balioa ematea ere erabat zartatuta gelditzen da, ezagutzen ez dena ez delako baloratzen. «Egunotan itxialdiak eraman gaitu egunerokoan hainbeste presentzia ez daukaten beste jarduera batzuk fokuan jartzera, adibidez kantuan eta dantzan egitera. Hezkuntzan dihardutenek ere egunotan normalean baino balio handiagoa ematen diote gorputza dantzan jartzeari, mugitzeari».

Tesiaren egileak dioenez, dantzak hezkuntzarako duen garrantzia ezin da neurtu eta



Lerroon gainean, Bergarako San Martzial jaiak. Azpian, sagar dantza, 1930ean. BERGARAKO UDALA - Gerardo ZARAGUETA

baloratu norberak inoiz dantzan egiten ez badu. «Beraz, gaur egun hezkuntzatik guztiz alboratuta dagoen jarduera hau, dantza, nekez hartuko da aintzat hurrengo belaunaldietan arduradunek ez badute dantza egiten».

«Planteatzea dantzak izan beharko lukeela espazio ez osagarri bat, baizik eta funtsezko bat hezkuntzan ematen du dantzari zoro batzuen aldarria dela, baina gizakiaren historiari begiratzen badiogu berehala ohartzen gara dantza beti izan dela ikasketa eredu nagusien zutabeetan: greziar ikasketetan, berpizkundeko jauntxoek eta nobleziaren ikasketetan, jesuiten eskola sistemetan. Militarrek dantza erabili dute formaziorako».

Baina duela urte batzuetatik hona ez dago hezkuntzan eta bat dator gizonak dantzaren mundutik urruntzen diren aro edo prozesuarekin.

«Bilatu dudana da agerian jartzea genero identitatea euskal dantzan eraikuntza bat dela eta eraikuntza horren ezaugarriak biluztea, dantzan aritzen garenok ahalik eta esku libreengatik izan ditzagun»



«Gizonak dantzatik urruntzeak dakar dantzak denentzat dituen balioak eta ekarpenak galtzea».

Aldi berean, egun zehatz batzuetan, gure herriko egun handietan kasu, pila baloratzen da dantza. «Hori da gure paradoxa. Baliabideak jartzen ditugun eremuetan eta gure bizitzarako funtsezkoak diren jardueretan ez dago dantzarik,

baina gure burua ospatzeko, besteei harrera egiteko edo zerbait gozagarria eskaintzeko antolatzen ditugun ekitaldietan dantza beti dago hor. Gure agintariek ez dute beharrezkotzat ikusten dantza hezkuntza sisteman modu organiko batean txertatzea, baina inori ez zaio bururatzen ekitaldi instituzional gloriatsu bat bere aurrerik gabe».

Euskal dantzetan genero identitatea nola eraiki den aztertzen hastean detektatu zuen bazegoela garai zehatz bat azkartze edo indartze handi bat gertatu zena: XIX. mende bukaeratik XX. mendearen hasierara. Ikerketa aro horretara mugatu du, baina galderak orainaldian egin ditu: «Nondik datoz ditugun muga, kategorizazio, estereotipo, rol identitate hauek?». Erantzunak aro horren eragin eta ondorioetan aztertzen saiatu da.

Metodologia

«Metodologikoki horretan lagunduko lidaketen tresnak baliatu ditut. Batetik historia, eta bertatik interesgarri gertatu zait ez bakarrik historia soziala, baizik eta oso ekarpen interesgarriak egiten ari den emozioen historia».

Bestetik, dantzaren antropologiak hurbildu da. Eta antropologiak folklorea eta tradizioa ikertzeko eskaintzen dituen tresnak ere erabili ditu. «Hori oso inportantea da nire lanerako, dantza tradizionalaz dihardugulako eta, beraz, jakin behar dugulako zeri deitu nahi diogun tradizioa».

Eta, funtsean, zehar-lerro bezala, genero ikasketak baliatu ditu. «Teoria feministak azken hamarkadetako begirada aldatzeko gaitasun harrigarria izan du eta horren zordun erabateko da lan hau».

Aurreskua

Bi dantza esparru edo erreperitorio mota aztertu ditu Oier Araolazak tesian: aurriskuari dagokiona eta ezpata-dantzarien eta gorularien edo poxpolinen esparrua.

«Aurriskuaren kasuan garbi ikusi dut kategorizatze prozesu bat abiatu zela XIX. mendean. Neurri handi batean

ilustrazioaren eraginez genero eta adin kategorien arabera sailkapen bat eraiki zen. Gizon dantza izango da garrantzitsua edo jauntxoan aurreku hori, eta egongo dira galaien dantzak, mutil ezkongabeen dantzak, etxeko-andre dantza, emakume ez-konduen aureskua, neskatxen esku-dantza... Gizonen aureskua izango da garrantzi handiena daukana eta XIX. mendetik XX. menderako aldaketan fokua jartzen hasiko da gizon dantza horretan eta bukatuko da ukatzen beste auresku motarik zegoenik ere. Hala, gizon dantza bihurtuko da aureskua».

Ezpata eta sagarra

Poxpolinei eta ezpata-dantza-ri dagokienez, bi eredu eraiki dira gizonen dantzak eta emakumeen dantzak osatuz eta bakoitzari ustez genero kategoria horiei lotzen zaizkien ezaugarriak ezarri zaizkio. «Indarra, mugimendu bortitzak, hanka altxatze handiak, zenbait tresna (ezpatak, makilak), maskulinitatearen ezaugarritzat hartu dira. Eta, beraz, ezaugarri horiek dituzten dantzak gizonezko dantza bezala kategorizatu dira. Eta kontrara, femininotzat jo diren zenbait ezaugarri dituzten dantzak, salto handirik ez daukatenak, harmonikoak, atseginak, goxoak, lasaiak, emakume dantzatzat hartu dira. Zinta dantza edo sagar dantza adibidez. Edo arku dantza baina arkuek elkar jotzen ez duten kasuetan».

Momentu horretan gizarte-an oro har badago generoaren naturalizazio handi bat. «Uler-tzen da edo hasten da defendatzen emakume eta gizonak jaiotzez garena desberdinak eta desberdin adierazi behar du-gula eta hori dantzaren bidez

«Gure agintariek ez dute beharrezkotzat ikusten dantza hezkuntza sisteman modu organiko batean txertatzea, baina inori ez zaio bururatzen ekitaldi gloriatsu bat bere aureskurik gabe»



Oier Araolaza Arrieta, Zestoan hitzaldi bat ematen. Amañur ARISTI

oso ongi irudikatzen da. Plaza-ren erdian gorputzarekin egiten den jardura bat da. Beraz gorputz hori modu batera edo bestera dantzan jarritzari dagokion genero identitate hori oso modu sinboliko

argigarrian transmititzen zaio begira dagoen gizarteari».

Janzkera

Janzkerak paper garrantzitsua jokatzen du. «Adibidez, emakumeak dantzatzen zirenean txapela janzten zuten gizonek bezala, ez zelako gizonen edo emakumeen janzki bat, baizik eta jarduerarekin lotzen zena. XX. mende hasieran txapela poliki-poliki gizonezko janzki bezala kategorizatzen hasi zen eta emakumeek dantzarako ere ez zuten erabiliko. Gehienetan buruko zapiaren erabile-ra nagusitu zen genero markaren adierazle moduan».

Kolorearekin antzera gertatu da. «Gure dantza sistema erritualean zuria izan da gehien erabili dena, apaingarri koloretsuz lagunduta, gehienetan gorri. Kolore uztarketa hori gero eta gehiago gizonezkoen janzkera bezala sailkatu da. Horren parean, emakume poxpolin eta gorularientzat gona gorria eta gerruntze beltzaren eredu bultzatu da».

Oier Araolazak ez du garbi emakumeek egiten zituzten dantza erritualetan gona beharrezko janzkia zen. Zenbaite-tan galtzak, belaun azpiraino-koak janzten zituztela ikusi du, baina momentu batetik aurre-

ra –1911n mundu mailan zabaldu zen gona-prakaren inguruko gatazkak horren berri ematen digu–, emakumeek galtzak janztea debekatu zieten hainbat tokitan. «Erdi bideko zerbait izateko gona-praka horiek planteatu ziren, baina Bilbora iritsi zirenean izugarritzko istiluak eragin zituzten. Biolentziaz debekatu eta ukatu zieten emakumeek galtzak janztea, baita dantza errituale-tan ere, eta ezinbestez, gona erabili behar izan zuten».

Oraingo dantza taldeetan generoari eta dantzari buruz go-goeta egiten denean arazo handienak jantziarekin sortzen direla aitortu du. «Hain naturalizatu eta barneratu dago gona dela emakumeek dantzarako erabili beharreko janzkia, praka janztea dantzaren testuinguruan maskulinitzat jotzen dela... Bitxia da, egunerokoan gonak ez bezala prakak ez daukalako genero markarik. Dantzaren testuinguruan neska gazteengan ere sumatzen da errefusa eragiten diela praka janzteak iruditzen zaielako hori gizon janztea dela eta ez dantzari janztea. Erakuntzak dira; ez dago emakumeen edo gizonen janzkirik, dantzarako janzkiak dira», berretsi du tesiaren egileak.



Dantzari dantza Garain, neska zein mutilekin, 2005eko uztailaren 31n. UNZUETA